

## UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udaltzaren Araudi Organikoaren 90. eta 91. artikulua oinarri, **ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzeko ordenantza fiskalerako ARAUDI PROPOSAMEN** hau egiten du, Udaltzaren azter dadin.

### JUSTIFIKAZIOA

Neurri honekin, kuotaren hobariaren ehunekoa eta familia ugarietarako tarte bakoitzaren gehieneko muga handitu nahi dira.

Halaber, guraso bakarreko familientzako hobari bat planteatzen dugu, hiru seme-alaba dituzten kategoria orokorreko familia ugarietarako egiten zaien hobariaren parekoa.

Hori dela eta, honako ARAUDI PROPOSAMEN hau proposatzen dugu **ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZARAKO:**

### Hau jartzen duen lekuan:

#### 3.- "Familia ugariak.

Ondoko ehuneko eta mugei dagokienez, familia ugarien ohiko etxebizitza izatera zuzendutako hiriko ondasun higiezinak, haietako subjektu pasiboek, dagokien titularen bidez, familia ugarietarako titular direla egiaztatzen dutenean.

Hobaria zergaldietan emango da, familia ugarietarako titular baldintza betetzen bada, kopuru eta muga hauekin:

Kategoria orokorra:

- a) Hiru seme-alaba edo baliokidea, kuotaren % 50, muga 330 € dela.
- b) Lau seme-alaba edo baliokidea, kuotaren % 60, muga 330 € dela.

Kategoria berezia:

- a) Bost seme-alaba edo baliokidea, kuotaren % 78, muga 460 € dela.
- b) Sei seme-alaba edo baliokidea, kuotaren % 88, muga 460 euro dela.
- c) Zazpi seme-alaba edo gehiago ala baliokidea, kuotaren % 90, muga 570 euro dela.

### Hau jarri behar luke:

### 3.- "Familia ugariak.

Ondoko ehuneko eta mugei dagokienez, familia ugarien ohiko etxebizitza izatera zuzendutako hiriko ondasun higiezinak, haietako subjektu pasiboek, dagokien tituluaren bidez, familia ugariko titular direla egiaztatzen dutenean.

Hobaria zergaldietan emango da, familia ugariaren titular baldintza betetzen bada, kopuru eta muga hauetan:

Kategoria orokorra:

- a) Hiru seme-alaba edo baliokidea, kuotaren **% 60**, muga **460 €** dela.
- b) Lau seme-alaba edo baliokidea, kuotaren **% 70**, muga **460 €** dela.

Kategoria berezia:

- a) Bost seme-alaba edo baliokidea, kuotaren **% 88**, muga **570 €** dela.
- b) Sei seme-alaba edo baliokidea, kuotaren **% 98**, muga **570** euro dela.
- c) Zazpi seme-alaba edo gehiago ala baliokidea, kuotaren **% 100**.

### Hau gehitzea:

12. artikulua. Hobariak

## 7. Guraso bakarreko familiak

Ondoko ehuneko eta mugei dagokienez, guraso bakarreko familien ohiko etxebizitza izatera zuzendutako hiriko ondasun higiezinak, haietako subjektu pasiboek, dagokien tituluaren bidez, guraso bakarreko familien titular direla egiaztatzen dutenean.

Hobaria zergaldi guztietan emango da, guraso bakarreko familien titular baldintza betetzen bada, kopuru eta muga hauetan:

Kuotaren **% 60**, gehienez ere **460 €**.

Donostia, 2021eko abuztuaren 1a

Borja Corominas Fisas

Udaleko Talde Popularraren bozeramailea